

JARRAITU
SEINALEEI

JOAN-ETORRIAK

seinaleztatuta egongo dira.

Kasu egin kartel informatiboei
eta instalazioko langileen
oharrei.




IGERILEKUA ERABILERA

SARTU WEBGUNEAN, ERREGISTRATU, ETA
AHAL DUZUN GUZTIETAN EGIN
ERRESERBA ONLINE. EZIN BADUZU, EGIN
ERRESERBA KIROLDEGIKO HARRERAN
EDO TELEFONOZ.

KONTAKTUA

Bidebarrieta Kalea, 2
20560 Oñati
943 716375
zubikoa@onati.eus
zubikoakiroldegia.oñati.eus





ERRESERBA

egitea nahitaezkoa da.

- **Abonatuak bakarrik** egin dezakete erreserba.
- **Kirol Txartela** irakurgailutik pasatu behar da.
- **Telefonoz** edo **online** egingo da.
- Erreserba **gehienez hiru egun lehenago** egin daiteke, eta **epe horretan erreserba bakarra izan dezake aktibo** erabiltzaileak.
- **Erreserba bat, eguneko eta pertsonako.**
- **Ezin izango da erreserba egin, aurrez egindako bat "erabili gabe" badago.**
- **Plaza librerik badago, egunean bertan** egin ahal izango da erreserba.
- **Igerilekua erabili ondoren, hurrengo egunerako erreserba egin ahal izango da** (ondorengo egunetarako erreserba bat egina ez badago).
- **Familia-erreserbak igerileku txikira** bideratuko dira. **Familiaburuak** egingo du **erreserba**.
- Igerileku handia eta txikia bi gune ezberdin dira. Beraz, **erreserbak independenteak** izango dira.

■ **Erreserba** egin ondoren, **erabiliko ez bada, lehenbailen baliogabetu** behar da. Erreserba behin baino gehiagotan baliogabetu gabe geratzen bada, ezingo da bi astetan erreserba gehiagorik egin.

■ **Maskara erabiltzea nahitaezkoa da**, igerileku barruan eta dutxan izan ezik.

■ Uneoro erabiltzaileen arteko **segurtasun-distantzia errespetatu**.


■ **Aldageletan ezin dira gauza pertsonalak utzi. Takilak erabili behar dira (giltzarrapoa beharrezkoa da).**

■ **Erabilgarri dauden takillak bakarrik erabili.**



ALDAGELAK ETA DUTXAK

aforo mugatuarekin.



■ Osasun agintariek hartzen dituzten **neurrien arabera egokituko** dira erabilera-baldintzak.

■ **Dutxak banaka** erabiliko dira.

■ **Erabilgarri dauden eserlekuak eta dutxak bakarrik erabili.**

■ **Etengabe aireztatuko dira instalazioak:** ireki aurretik, erabiltzen diren bitartean eta itxi ondoren.

TXANDAK  **ordubetekoak**

(Itxi aurreko azken txandak izan ezik, horiek 45 minutukoak)

■ **Aldagelara ordu laurden lehenago** sartzeko aukera egongo da (Kiroldegia irekiera-orduetan izan ezik).

*Igerilekuak egoera onean mantentzea gure esku dago.
Arduraz joka dezagun.*